

Abarrak

JON TORNER

TMEO, 25 urtez aurpegira txiza eginez

TMEOk 25 urte (117. zenbakia, 2012ko ekaina).
20 x 28 zentimetro. 100 orrialde, koloretan. 5 euro
Ezten Kultur Taldea (Gasteiz).

TMEO komiki aldizkariaren 0. zenbakiko azalean zezena eta toreatzailea ageri ziren. Toretzailea zen odolusten ari zena, eta zezena haren belarria eskuan zuena. Mariano Rajoy Espainiako presidentea, polizia bat, atso aberats bat, *miss sinpatia*, Benedicto XVI. Aita Santua eta Espainiako Erregea daude 25. urteurreneko zenbaki bereziko azalean, haiei begira dagoen zakil puntaren pixak zipriztinduta. Atzerago ikus ditzakegu gimnasioa, udaletxea, polizia-etxea, eliza eta bankua. TMEOk berezkoak dituen ezaugarriak biltzen dituzte azalok: ironia korrosiboa, estamentu politiko-erlijioso-ekonomiko batzuekiko kritika zorrotza, barre-algara ugari eta ostia txar apur bat, hori dena ukitu eskatologiko eta speed marra batzuekin nahasturik.

“Urte hauetan guztietan ehunka kolaboratzaile pasa dira TMEOtik. Batzuk bidean hil ziren, eta beste batzuek doan lan egiteaz nazkatu edo pitokeria baten-gatik haserretu zirelako laga zuten. Baina berriak etorri dira, bi hilabetez behin beharrezko txorakeria, gustu txarreko txiste eta errespetu falta dosia eskaintzeko”, dio editorialak. Horretan saiatu dira 100 orrialdeko zenbaki berezian bat egin duten egile gazte eta beterranoek. Han daude, adibidez, Roger, Santi Orue, Mauro Entrialgo, Pedro Vera, Ata, Gol, Piñata, Exkoriak eta Abarrots, ohiko dosietan, gehienez bi orrialde hartzen dituzten kapsuletan.

Dena ez da, baina, tripi kolorekoa. Euskararen presentzia erabat anekdotikoa da aldizkarian, eta txis-



TMEO fantzineak Iruñean hasi zuen bere ibilbidea, eta 5 urte bete zituen eraman zuten Gasteizera. 25. urteurreneko azal umel hau Furillok egin du, TMEOk kolaboratzailek zerrienaren titulua irabazteko Piñatarekin lehian ari den marrazkilariak.

teetako erreferentziak espainolak dira maiz. 25. urteurreneko azala eta kontrazala ditugu horren lekuko. Rajoy, Zapatero, Felipe Gonzalez, Aznar eta TMEOn protagonismo handia izan ohi duen –ongi merezita, hori bai– Borbon erregea ageri dira. Egia da horiek direla, gustatu ala ez, irakurleon erreferentziak, baina hurbileko –fisikoki behintzat– gai zein pertsonaia gehiago txertatzeak mesede egingo liokeela uste dut. Halakoak sartzean, gainera, bete-betean asmatu ohi dute tmeolariak. Juan Jose Ibarretxe, Arnaldo Otegi, Patxi Lopez, Athletic futbol taldeko jokalariek, etakideak, ertzainak... azal mitikoen protagonistak izan dira guztiak. Azal horiek Megaupload-en zeuden ikusgai duela gutxi arte, baina www.tmeo.org webgunetik hara sartzen saiatzean FBIren oharrarekin egingo dugu orain topo. Ea beste nonbait sarerartzten dituzten, bai orain artekoak, bai datozen 100 zenbakienak ere.



Pantaila Globala erakusketa, San Telmo Museoa Irailaren 30era arte

Pantailaren botereak egunerokotasunaren esparru guztietan daude: zinema, telebista, ordenagailuak, telefono adimendunak, tabletak, zaintza pantailak... Eta gure bizitzatan geratzeko etorri dira.

San Telmo Museoa Zuloaga plaza, 1. Donostia www.santelmomuseoa.com